



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

## **EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREGOAREN ADIERAZPENA, MARTXOAREN 29ko GREBA DELA ETA**

EHUn ordezkaritza daukaten sindikatuek irakasleen grebarako deia egin dute martxoaren 29rako. Deialdiaren helburua da eskatzea Eusko Jaurlaritzak erretira dezan Euskal Unibertsitate Sistemaren Legeko 34. artikulua arautuko duen dekretua, Jaurlaritzak laster onartu behar duena. Bestalde, sindikatuek ordainsari duinak ere aldarrikatzen dituzte irakasle eta ikertzaileentzat, eta horregatik soldataren igoera orokorra ere eskatzen dute. Deialdi honen aurrean, eta antolatzaileek gerora egindako adierazpen publikoen ildotik, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoregoak honakoak adierazi gura ditu:

Errektoregoak erabateko begirunea dio langileen greba eskubideari, baina ez dator bat antolatzaileek adierazitako iritziarekin, eta berretsi egiten du joan den martxoaren 23an EHUKo Gobernu Kontseiluko kideei banatutako dokumentuan azaldutakoa.

Erretiratzea eskatzen den dekretu proiektua irakasleen produktibitate osagarrien ordainketa arautzera dator. Hala ere, dekretu horrek ez ditu agortzen Euskal Unibertsitate Sistemaren legeak ikertzaile eta irakasleen ordainsarien arloan izan ditzakeen garapen guztiak; aitzitik, lehen urratsa besterik ez da, eta haren atzetik gutxienez beste dekretu bi etorriko dira gai berberaren inguruan. Hiru dekretuok irakasle eta ikertzaileen soldatak duintzea ekarriko lukete, eta haien bitartez modua egongo litzateke irakasleen merezimenduak baloratzeko eta haien araberako pizgarriak ordaintzeko.

Hori dela eta, dekretuaren tramitazioa geldiarazteak edo dekretua erretiratzeak ondorio erabakigarriak izango ditu beste arlo batzuetan. Izan ere, horrek ekarriko du, gutxienez, beste dekretuen tramitazioa *sine die* atzeratzea, horrek dauzkan ondorioekin ordainsariei buruzko gaiak behin betiko normalizatzeari begira.

Bestalde, eta argitasunaren mesedetan, grebarako deia egin dutenek zehaztu egin beharko lukete ea eskatzen duten igoera orokor hori gehitu beharko litzatekeen gaur egun irakasleak aurrerapen gisa jasotzen ari diren kopuruei (aurrerantzean produktibitate osagarri gisa ordainduko direnei) edo, bestela, igoera horrek kontzeptuok ordezkatuko lituzkeen, erabat edo neurri batean, bederen. Hori argitu ezean, ezinezkoa da esatea eskakizuna egokia edo betetzeko modukoa den.

Esandako guztiagatik, aipatu diren helburuak lortzeko greba bat antolatzea —eta, ustez, egitea— errakuntza iruditzen zaio EHUKo Errektoregoari, horrek oztopatu eta atzeratu baino ez baitu egingo hainbat egoera ez desiragarriren behin betiko konponketa, eta gainera kolokan jarriko du arlo honetan dagoeneko lortu diren zenbait gauza bideratzea.

Azkenik, Errektoregoak gogoratu gura du ez dela inoiz saiatu bere burua langileen ordezkaritzat agertzen, baina, era berean, ez dituela bazter utziko unibertsitatearen gobernuan dagozkion erantzukizunak.

Leioa, 2006ko martxoaren 27a